



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

630. zkia.

XV. urtea

2007ko urriaren 11a

Ludoteka eta gaztelekua zabalik

**Gu bagoaz,
zu bazatoz?**



ASEGURU ARTEKARITZA

URNOBITZA S.L.

MS - 010

AUTOMOBILAK, MOTOZIKLETAK, ZIKLOMOTORRAK, KAMIOIAK, MIKROAUTOAK,
DENAK ASEGURA DAITEZKE URNOBITZAN.

MERKATUAN LIDERRAK DIREN KONPAINIEKIN EGITEN DUGU LAN.
INPARTZIALAK GARA, TRATU PERTSONALA ETA ZUZENA.

Aholkua eskatu, egungo zure prezioa hobetuko dugu eta opari bat jasoko duzu.
(Opariak amaitu arte).

URNOBITZA, Aseguru artekaritza, S.L.
Pedro Miguel Urruzuno kalea, 31 behea
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 28 64



RENAULT
vehiculos comerciales

Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.

Azken belaunaldiko injekzio zuzeneko motor potenteagoak.

Kangoo

Trafic

Master



Autonomo edo enpresaria bazara gure ibilgailu komertzial guztietan:

• %23ko deskontua*.

• Finantziazio baldintza bikainak*.

* Autonomo eta enpresarietarako eskaintza berezia 07-09-30 arte. Ezin zate beste promozioei gehitu. Buztun diren modeluak: Kangoo Express Comfort, Trafic Furgoneta Labarra Normala eta altzarutako Master Furgoneta Erakutsia. Renault ibilgailu komertzialen kategorian: konsumo mixto (l/100) 5,3tik 8,9ra. CO₂ (urketa) (g/km) 139tik 235era.



RENAULT
AUTOBERRI

ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA



IMANOL LARRAÑAGA

Ez dakit zer eta zelan idatzi. Burua bueltaka daukat, baina atzaparrek ez dute tiki-taka hasi nahi; teklatu gainean dauzkat, baina geldi. Eta pantaila, zuri. Idazle askori irakurri izan diot momentu ilun eta gogorretan pizten zaiola inspirazioaren argia, baina nik errazago eta gusturago idatzi nizun su-etena ospatzeko piztu genuen suaren argipean. Idazlea ez naizelako izango da.

Uxue, Ruper Ordorikaren kanta baten letra zati bat iltzatu zait egunotan: "Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den". Atzo gauean, adibidez, sofan etzan eta kanta entzuten hasi nintzanean, begiak itxi eta gure lagun bat ikusi nuen sabelean daukan semetxoari berbetan. Bera jaiotzen denerako aitaxo espetxetik irten eta etxean egongo dela esaten zion. Gerotxoago, berriz, aita gehiago ikusiko ez duten neska-mutil batzuk ikusi nituen jolasean; eta hauen inguruan, saminak azpian harrapatutako alargunak. Kantak aurrera egiten zuen arren, begiak zabaldu nituen sufrimendu gehiago ez ikusteko.

Ez dakit urtebete barru zer galdetuko diguten; ez dakit kontsultarik izango den ere. Edozein modutan, beharbada, lehendakariaren galderaren zain egon beharrean, eta berandu izan baino lehen, bakoitzak galdetu beharko dio bere buruari zer egin dezakegun euskaldun izatea hain nekeza izan ez dadin. Zer egin dezakegu, Uxue?

ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

Erantzunik banu... ez nuke ipuinik idatziko!

Etexera bidean autoz nentorrela Pako Aristiri entzun diot hemen kontrapolitika gehiegi egiten dela, eta propolitika gutxi egiten dela, alegia. Espainiako eta Frantziako Gobernuetatik datozen eraso etengabeek defentsara garamatzate beti, eta defentsan dagoenak ez du ezer sortzen, datorrenari erantzunik ematen dizkio, ez zaio gehiagorako energiarik gelditzen. Elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatua nahi duena esateko aske dela iruditzen zaigu, baina kazetariak marrazten dio bidea, mugak jartzen dizkio; hark zehazten du zer den interesgarria eta zer ez; zeri buruz hitz egingo duen eta zeri buruz ez. Eta nekatzen denean agurtu egingo du: lortu dut zugandik nahi dudana, eta telefonoa eskegiko du. Klik.

"Ez dakit zer esan" diozu, blokeatuta zaude. Eta tamalez, horiexek dira gizarte euskaldunean ikusten ditudan bi jarrera nagusiak: zerbaiten kontra dagoen jendea (lubakiaren alde bietan) eta blokeatuta dagoen jendea. Politika baikorrik ez dago ia. Agian horixe da bidea: bestearen kontra egin beharrean norbere alde borroka egitea. Ez baita gauza bera. Baina Davidek behin irabazi zion Goliati. Galdu zituen borroka guztiak ez dizkigute kontatzen.

«Zer egin daiteke euskaldun izatea hain nekeza ez izateko?»

IMANOL

«Erantzunik banu ez nuke ipuinik idatziko»

UXUE



BIZITZA ZER DEN IKUSITA BATEK MENDEKUIAREKIN EGITEN DU AMETS

Paul Gaughin



Basarteko farolak

Asteburuetan bakarrik egoten naiz zuen herrian, baina goizetan harrituta egoten naiz Basarte auzoko farolei begira. Eguna zabaldu ondoren ere piztuta egoten dira. Eta ez pentsa 20-30 minutuko kontua izaten denik; asteburu hone-tan, adibidez, eguna ondo zabaldu eta ordubete baino gehiagora itzali ziren.

Ez dakit zeinen ardura den farolak piztu eta itzaltzea, baina, nire ustez, ezin dugu energia modu horretan alferrik galdu. Izan ere, ondo dago Agenda 21 bezalako plan handiak martxan jartzea, baina detaile txikiei ere erreparatu egin behar diegu. Adibidez, Basarteko parkea hilabeteetan egon da zakarrontzirik gabe (ez dakit jarri duten ala ez). Parke horretan jende asko eta asko ibiltzen da (umeak eta haven gurasoak), eta zakarrontziren bat ipintzea ez dut uste lan handia denik.

Esan dizuedan moduan, ekologiaren eta ingurugiroaren aldeko plan handiak ekintza txikiekin betetzen dira.

M.O.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza
PUBLIZITATEA Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **KOLABORATZAILAK**
Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri,
Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia
Gorroxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Laramaga, Ainhoa Lendinez,
Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen
Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte,
Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale
LEGE GORDAILUA SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



TXALOK

- **Eskerrik asko autopista irteeran aparkalekua egiteagatik:** “Bazen garaia! Aspaldi hasi ziren autopista irteerako aparkalekuko obrak eta kosta zaie bukatzea. Oso ondo gelditu da. Oso handia ez izan arren, auto asko kabitzen dira eta ingurunea txukunago gelditzen da. Lanera joateko autoa konpartitzen dugunon-tzako oso ondo dago”.

- **Txalo bero bat Errosario kaleko jaietako antolatzaileei:** Errosario kalean jaio eta bertan bizi den emakume batek Errosario kaleko jai batzordea txalotu nahi du. “Aurtengoan ere, egitarau zabalak antolatu duzue eta giro bikaina izan da gure kalean. Eguraldiak ez du gehiegi lagundu, baina primeran pasatu dugu denok. Jarraitu horrela”.



- **Ubitarten hormigoizko blokeak jarri dituzte espaloi gainean:** “Txalo bero bat eman nahi diot Udalari, espaloi gainean ez aparkatzeko hartutako neurriagatik. Herriko beste auzo batzuetan ere hartu dira neurriak. Hala ere, Trenbide kaleko aparkalekuan ere zerbait egin beharra dago. Jendeak San Rokerako al-dapa hasten den lekuraino luzatzen du aparkalekua eta arrisku handia sortzen da”.



KEXAK

- **Urasandin ere pibote hidraulikoak nahi ditugu:** “Madalako errotetatik Urasandirako bidea itxi egiten dute asteburuetan, kanpotik etortzen diren gazteak sartu ez daitezten. Hori oso ondo dago, izan ere, dena zikin-zikin eginda lagatzen zuten eta sekulako zarata ateratzen zuten. Ez nago piboteen kontra, baina pibote hidraulikoak jartzea eskatu nahi dut, San Frantzisko iturri inguruan egin duten bezalaxe. Urasandin garaje asko dago eta bertara joateko traba handia dira pibote hauek. Kotxetik jaitsi, pibotea zabaldu, kotxea barrura sartu eta berriz ere autofik jaitsi behar dugu pibotea igotzeko. Ez dut uste asko eskatzea denik, guk ere ordaintzen ditugu zergak”.

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

Txikitan entzundakoa

Gaizki bizi ginala ta gaizki bizi ginala... ta dana gizurra! Askotan entzuten nuen esaldi hau txikitan Tarragonako hondartza ederretan. Nik barre egiten nuen orduan, baina ez nekien zergatik, ingurukoek barre egiten zutelako egiten nuen barre nik ere.

Aurten, gehientsuenok lanean edo eskolan hasi zareten egunetan Cadiz ezagutzeko aukera izan dut; lau lagun joan gara motxila hartu eta kanpin denda batekin. Andaluzek txunditu egin gaituzte; benetan grazia dutela erakutsi digute, presa gabe bizi direla, euren kontuak elkarbanatzeko gogoia dutela...

Etxe zuriz betetako herri txikiek hondartza luze, bakarti eta la-saietara eraman gaituzte... Eta horrela, paradisuan gaudela sentitu dugu. Garazik *horrela bizitzeko zertarako hil?*, bota zuen behin bertako paraje ederrak miresten geundela eta Ainhoak, Izarrek eta hirurok arrazoi eman genion bi aldiz pentsatu gabe.

Aurengo udan, beraz, txikitan entzundakoa errepikatu dut: Cadizek merezi duelako, gaizki bizi ginala ta gaizki bizi ginala... ta dana gizurra!

Ane Odria

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ROSA PIÑEIRO

GORBEA
JATETXEKOA

• **Zer eskaintzen duzue zuen jatetxean?**

Denetatik. Era guztietako menuak: eguneko menuak, gazte-entzako menuak, menu bereziak, mariskadak...

• **Berezitasunik?**

Pintxoak esango nuke. Eta janarietan zapoa geurean oso ona ateratzen dela esango nuke.

• **Zein da sekretua?**

Ona egoten da.

• **Bezeroetatik, zeintzuk dira esker onekoenak?**

Jende guztia, nik uste dut. Hona etortzen direnak esker onekoak izaten dira normalean. Gazteak zein zaharrak.

• **Jatetxe bat ondo eramateko zer izan behar da kontuan?**

Jendearekin atsegina izan eta jendeak zugandik espero duena kontuan izatea.

• **Kanpora zoazenean zer eskatzen duzu jateko?**

Arraina, normalean. Arraina gustatzen zait.

• **Eta zertan erreparatzen duzu?**

Zerbitzatzeko moduan, mahaia jartzeko eran, jana platerean jartzeko detaileetan... lehen erreparatuko ez nuen gauzetan. Beste batzuek ez duten gauzetan erreparatzen dut, erakarmena sortzeko edo berritzeko.

Urriaren 23an urtea beteko dugu.

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE ZUBIZARRETA

1924an jaioa

«Euskeria»

Lehen etxeko euskeria egitten gendun. Euskeria herri guztixetan diferente egitten da; zeozeren diferentzia euki arren, dana euskeria da.

Nik pentsatzen dot euskerarik onena Bizkai aldiaren egitten dala. Nik iñoiz bertso batzuk kantatu bihar ditutenian, ahal dotena, baiña lagun artian eta etxian, lehengua, neu lehengua naiz eta.

Askotan esaten da ze gauza edarra euskera batua. Eskolan dotriña erderaz erakusten ziguen, eta ez naban ezer en-

tenditzen. Ezjakiña eta tontua iguala dirala esaten dabe askok, baiña diferentia dira. Ezjakiñak ez daki asko, erakutsi ez diuelako, baiña tontuak ezin dau ikasi. Nik urtiak mordua diitut, baiña esperientzia gitxi. Eskribitzen eta leitzen ikasi genduan, eta ez da gitxi! Oiñ, gehixago ikasi izan bagendu, burua hobeto eukiko naban. Erderaz gitxi dakit nik, San Lorentzotik ez dot urrutira urten eta.

Euskeraz gitxi eta erderaz gitxiago. Etxeko euskeria dakit nik: danian diferente egitten da, baiña euskeria da.



[GURE BERBAK]

Morfologia (5): ZERTAZ

Instrumental kasua dogu hau. Aurreko batian esan bezela, forma fosilduetan, ihartuetan bakkarik erabiltzen da instrumentala Elgoibarko herri-hizkeran, mugagabian, mendebalde ixa guztixan bezela:

<i>nekez</i>	<i>ahuspez</i>	<i>garaiz</i>
<i>egunez</i>	<i>gabaz</i>	<i>oiñez</i>
<i>kamiñoz</i>	<i>harrezkero</i>	...

Ez da erabiltzen, hortaz, mugatuko fometan, ez singularian, ez pluralian. Egittura hauek ez ditte erabiltzen euskera batuan alfabetatu gabedaguan elgoibartar hiztunak:

**Etxiaz jardun dogu.*

**Lagunez akordau nitzuan oiñ hurrenguan.*

Horren orde, beste kasu-marka eta postposizio batzuk erabiltzen dira:

- Inesibua: *arratsaldian, gabian, trenian.*
- Postposizioen bat: *-ren gaiñian: Mirenen gaiñian jardun juagu.*
- Sozietiboa: *Mikelekin akordau naiz.*
- Motibatiboa: *zuengaittik ari giñan gaizki esaka.*
- ...

Horren orde, beste kasu-marka eta postposizio batzuk erabiltzen dira:

- Izatez markiñarra naiz, baiña Elgoibarera ezkondu nitzan.*
- Entrenauaz hobetzen da kiroletan.*

Jesus Mari Makazaga



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Lagun

ILASKI SERRANO

«Euskarak alor guztietarako balio duela erakutsi dugu Mihiluzen»

Jaiotzez bermeotarra izanik, Arantzan (Nafarroa) bizi da Ilaski Serrano. Oso gazte hasi zen irratian eta telebistan ere urte mordoak daramatza. ETBko Mihiluze saioan ikusten dugu orain, Kike Amonarizekin batera. Irratia alde batera laga du aurten antropologia ikasketan amaitzeko. Ez da geldirik egoteko neska.



• **Bermiotik Arantzara. Zer moduz Nafarroa aldean?**

Zoriontsu! Jaiotzez Bermeokoa naiz eta ikasten ari nintzeanean, Bilbo inguruan bizitzen egoon nintzen. Bizkaia aldean hasi nintzen lanean, baina gero Miramonera joan nintzen Kuxkuxeroak programa egitera. Euskal Herri osoan ibiltzen ginen, txoko guztietan lagunak eginez. Batean lagun baten etxean lo egin, beste lagun baten etxean hurrengoan... Herririk-herri eta festaz-festa, Lesakako San Ferminetan Arantzako morrosko bat ezagutu eta berarekin gelditu nintzen.

• **Kostaldetik mendira. Mendizalea al zara?**

Bat ere ez! Ikusteko bai, baina igotzeko ez. Hala ere, leku zoragarria da hau, ipuinetako lekua. Etxe zuriak, jende guztia euskalduna da, oso ondo jaten da eta leku lasaia da. Oso gustura bizi naiz bertan. Nire buruan apur bat idealizatuta daukat Arantza.

• **Telebistaren bestaldetik oso alaia zarela dirudi. Nolakoa da Ilaski Serrano?**

Horrelakoxea apur bat. Zorionez ez zait ezer gogorrik pasatu, baina badaukat, gaine-

E
Z
A
G
U
N
A
K

ra, momentu txarretan heldulekuren bat bilatzeko gaitasuna. Batzuk ezkorak dira, ur putzu batean itotzen dira. Ni oso baikorra naiz, irribarrea erraz ateratzen zait.

• **Irratian, telebistan eta antropologia ikasle. Nondik ateratzen duzu denbora?**

Irratia ikasturte honetan laga egin dut. Ia ikasketak amaitzen ditudan! Ondo antolatzen jakinez gero, ateratzen da denbora. Hara eta hona ibiltzea gustatzen zait. Tarte-ka etxean geratzea ere gustuko dut, baina zer eginik gabe egotea zaila da.

• **Denbora librean zer egiten duzu?**

Orain denbora libre gutxi daukat, baina oso musikazalea naiz; rock-a gustatzen zait, kontzertu inrdartsuak, baina musika klasikoa ere gustura entzuten dut. Musika dena dut gustoko. Aisialdi denboran bakarrik egotea ere gustatzen zait, pelikula bat lasai ikusi eta negar egin... lagunez inguratuta egotea ere maite dut.

• **Athletic zalea ere bazara. Asko sufritzen al duzu futbolarekin?**

Ekipo honegaz maiteminduta egoten ginen sasoiari bai, baina orain ez. Ez dut batere sufritzen, ez du merezi. Hori baino askoz gauza garrantzitsuagoak daude bizi-tzan.

• **Irratia zuzenean eta telebista grabatuta. Zein duzu nahiago?**

Zuzeneko faltsu bat egiten dugu Mihiluzen. Aurrean handia dago, baina bapate-kotasunak ere badu lekua. Lehiaketa bat da eta ez dakigu zer gertatuko den. Txandak adosten ditugu komentarioak egiteko, baina gidoi barik egiten dugu lan. Asko eskertzen dut hori. Ikusle moduan ere, gauza freskoak ditut gustoko. Gainera, Kikerekin oso ondo konpontzen naiz, primeran ulertzen gara. Begiaren izkinatik ikusten dut noiz irekitzen duen ahoa eta badakit zerbait esatera dola, orduan ni isilik geratzen naiz. Batak besteaz ez zapaltzea garrantzitsua da.

• **Gaur egun Mihiluze saioan ari zara. Zer moduz doa?**

Hirugarren denboraldia da aurtengoa. Hasieran esan baligute hiru denboraldi iraungo genituela, amets bat zela pentsaiko genukeen. Gau bateko programa izate-tik egunerokora pasatu gara. Plazer bat da egiten duguna egitea, sinisten dugulako honetan. Lantalde oso ona daukagu eta jendeak oso ondo erantzun du. Orain kezka beste batzuk dira; ea jendea nekatu egingo



«Euskara ulergarriaren aldeko apustua egiten dut»

den, lehiakiderik izango ote dugun... Euskal Herria txikia da eta zalantzak sortzen dira. Momentuz osasuntsu gaude. Katalunian ere interesatu dira formato honekin eta antzerako programa bat jarriko dute martxan. Erakutsi egin dugu gure hizkuntzarekin alor desberdinetan jokatu daitekeela.

• **SMSak euskaraz bidaltzen al dituzu?**

Bai, baina den-dena idazten dut: komatxoak, punto suspentsiboak... ez dakit laburtuta idazten. Horretan trebea Kike da. Bere mezuak jasotzen nituenean ez nuen ezer ulertzen. Programako mezuak baino zailagoak ziren. Orain ulertzen ditut.

• **Zure inguruan mihiluze asko al dago?**

Zorionez bai, eta beharrezkoak dira. Urteak pasatu ahala, gauza asko ikasten dira eta konturatzen zara zer gauzak merezi duten benetan. Eta horietako bat konpainia da; konpainia on batek merezi du. Zorionez lagun zoragarriak ditut eta ahalegin handia egiten dut lagun onak zaintzeko.

• **Bizkaieraz egiten duzu. Apropos saiatzen zara ala berez ateratzen zaizu?**

Erdi eta erdi. Nik ulergarritasunaren aldeko apustua egiten dut. Aditu askok diote

euskara batua erabili behar dela, baina ni ez nago ados. Ulegarria den bitartean, norberak bere herriko hitzak sartzearen alde nago. Ulertzen bagara, gure hizkuntza zein aberatsa den erakusten ari gara. Euskara zuzenaren aldekoa naiz %100. Euskara batua egin zenean bizkaiera kanpogan geratu zen apur bat eta konplejo asko ditugu. Bermeon, esate baterako, euskara oso polita daukagu eta jendea lotsatu egiten da. Ni horren kontra nago.

• **Zaila da al ezaguna izatea?**

Gu ez gara oso ezagunak eta ez da gogorra. Oñatiko San Migeletan, adibidez, oso gogorra da. Herri txikietan jende asko gerturatzen da, baina modu onean etortzen dira. Euskaraz egiten dut lan eta Bilboko Gran Vian, adibidez, bi ume buelatuko dira ni ikustean, baina besteek ez naute ezagutuko.

• **Etorkizunerako planik?**

Datorrenari begiratu eta aurrera jarraitzea da nire asmoa. Nire buruari zerbait aportatzen diodan bitartean eta gauzak ikasten jarraitzen dudan artean, oso gustura egongo naiz.

[PROTAGONISTA]



Ion Gurrutxaga

UEK taldearekin disko berria kaleratu du Ion Gurrutxagak. Arima Beltza musika taldeko abeslari izandakoak batera jotzen du UEK taldean. Esan digunez, abestea faltan botatzen du, baina batera jotzen ere gustura ari da. Keu Agirretxea Ondarroako gitarra-joleak zuzendutako UEK taldearen bosgarren diskoa dugu "Uhinak" izenarekin kaleratu berri dutena. UEK taldearen orain arteko bilakaeraren ondorioz, hiru kidek osatzen dute egun taldea: Ion Gurrutxaga (Arima Beltza) batera jolea, Mikel Arakistain (Etsaiak, Fjord) baxujolea eta Keu bera.

[NOTIZIA]

Jantzien neurriak bateratzeko proiektuan 130 emakumek hartuko dute parte

Espainiako Kontsumo Institutuak jantzien neurriak bateratzeko proiektua jarri du martxan. Horretarako Estatu osoko emakumeen neurriak hartuko dituzte kontuan, emaitzak ahalik eta zehatzenak izateko. Elgoibarren 130 emakume neurtuko dituzte urriaren 7tik 15era bitartean.

Aukeraketa zoriz egin da eta emakumeen parte hartzea guztiz anonimoa da. Bizitza eta ohiturei buruzko galdetegia egiten diete lehenik. Ondoren, beso, bizkar eta gerri bueltako gantz kopurua neurtu, eta azkenik, laser teknologia bidez erabiltzen den kabina modukoan sartzen dituzte. Azken honek emakumearen gorputzaren hiru dimentsiotako irudia osatzen du ordenagailuan.



Lokala egoera txarrean

Gabriel Krutzelaegi kaleko Babes Ofizialeko etxeen azpiko lokal batean burutu dira neurketak. Egunean 25 emakume neurtu dituzte Valentziako Biomekanika Institutuko bi biologok. Parte hartu dutenek lokala egoera oso txarrean dagoela esan dute.

[ZENBAKIA]

70.000

Elgoibarko Udalak 70.000 euro inbertituko ditu gure herriko hainbat zonaldeetako barandauak berritzeko. Gutxi gorabehera 3,5 kilometro barandau berri jarriko dituzte. Udalak jakinarazi duenez, urtea amaitu aurretik obrak hasteko asmoa daukate; abendu inguruan.

asteko [ARGAZKIA]



Gutxitan ikusten dira horrelakoak Elgoibarren. Domeka goizean aho zabalik gelditu ziren alebin mailako Elgoibar eta Eibarren arteko norgehiagoka ikustera joandako futbolzaleak. Helikoptero batek lur hartu zuen Mintxetako futbol zelaiaren. Inork ez zekien zer gertatzen ari zen. Osakidetza helikopteroa zen, udaltzainek zelaigunea hustu eta anbulantzia bat iritsi zen. Ikastolan pilota partidua jokatzen ari zen gizonetako bati bihotzekoak eman zion eta ospitalera ahalik eta azkarraren eramatea zen helburua. Jakin dugunez, gizonak hobera egin du.

Miski Elkarteak 6.100 euro lortu ditu aurtengo kanpainaren lehen zatian



Miski Gobernu Kanpoko Erakundeak amaitu du aurtengo kanpainaren lehenengo zatia. Salgai jarritako boleto guztiak saldu eta jendeak emandako diru-laguntzekin 6.100 euro batu dituzte. Epe laburrean jarriko dute martxan kanpainaren bigarren zatia eta euren asmoa, ikastetxeetara hurbiltzea da. Dirua batzeaz gain, gaztetxoengan elkartasun sentimendua sustatzea nahi dute Miski Elkartekoek.

Gemma Agirregomezkortak adierazi du oso gustura daudela 2007ko kanpainan lortzen ari diren emaitzekin. Bide ba-

tez, boletoak doan ateratzen laguntzen dien Arillaga inprenta eskertu nahi izan du eta baita kanpainan lagundu duten elgoibartar guztiak ere.

Peruko haurrei laguntzeko

Peruko haurrak eskolaratzea da Miskiren ardatz nagusia, eta bide batez, euren bizi maila hobetzea. Honetan laguntzeko aukera desberdinak daude: Peruko haur bat besoetan hartuz (hilean 18 eta 25 euro artean eman behar da) edo Miskiko bazkide eginaz (hilabete amaieran ahal den diru-laguntza emanez).

Umeen jolasekin bukatu dira Errosario kaleko jaiak



Etxe txikiak izan dira Errosario kaleko jaietako azken protagonistak. Jai Bartzordeak antolatuta, umeentzako jolasak izan ziren astelehenean. Umez gainezka egon zen Errosario kalea. Zinta jokoak, soka-tira, zaku lasterketa, aurrutzak koilaran eramatea, itxulapikoak apurtzea... aspaldi ikusten ez ziren jolasak. Ume guztiak euren trebetasuna erakusteko ahaleginak egin zituzten. Parte hartzaileek izugarri gozatu zuten eta begira egon ziren gurasoek ere bai.

[MOTZ-MOTZIAN]

Mikel Ibañez preso epaitu dute familiari abisatu gabe

ETAko kide izatea leporatuta, martxoan atxilotu zuten Parisen Mikel Ibañez. Elgoibarko Askatasunatik jakinarazi digutenez, duela bi aste epaitu egin zuten Parisko Justizia Jauregian familiari abisatu gabe. Beraien esanetan, estradizioa eskatzeko probak ahulak dira, "erabaki politikoa" izan dela adierazi dute. Sententzia urriaren 24an aterako da.

San Migel jaietako zozketa

San Migel auzoko festetan zozketatu zen txekorraren zenbaki irabazlea 4.194 izan da (ordezkoa 4.850). Erri-fa irabazlearen jabeak 617332350 (Javier) telefonora deitu dezake.

Esperientziaren eskola

Debabarreneko Esperientziaren Eskolak laugarren ikasturtea jarri du martxan. Ikasteko gogoak daukaten pertsonentzako eskolak dira, baldintza bakarra 50 urtetik gorakoa izatea da. Izena emateko epea urrian bukatuko da. Eskolak ekainera arte luzatuko dira. Interesatuak Elgoibarko udaletxera edo Debesara (943820110) telefonora deitu dezakete.

Merkatu plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko bi sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Guada Mujika eta Maria Jesus Alberdi izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute. Zorionak!



Inkesta

Ludoteka eta gaztelekua ireki dituzte herriko ume eta gazteentzat.

Zer eduki behar du gaztelekuak zu bertara joateko?

MARIA ESTEVEZ

Ikaslea

11 urte



“Futbolina eta play station-a gustatzen zaizkit. Etxetik apur bat urrun gelditzen da gaztelekua, baina badaukat joateko asmoa. Lagun batzuk egon dira eta gustatu zaie.”

JONE LOIOLA

Ikaslea

18 urte



“Lagunekin gustura egoteko gune bat. Gazteei zer nahi dugun galdetzea da garrantzitsuenena. Probatzera joateko asmoa badaukagu koadrilan, gero ikusi egin behar.”

GORANE AYESTA

Ikaslea

12 urte



“Ordenagailuak eta jolasak badaude dagoeneko eta niri gustatzen zaizkit. Musika entzuteko gela bat ere jarri dute. Guri gustatu zaigu gaztelekua, oso ondo dago.”

KAIET ARCE

Ikaslea

14 urte



“Play station-a ezinbestekoa eta telebista ere jarriko nuke, lagunekin partiduak ikusteko. Bi aldiz egon gara dagoeneko eta oso ondo pasatu dugu. Joango gara berriro.”

[BAI ala EZ?]

Ikastolen aldeko jaiak beharrezkoak dira euskara indartzeko?

BAI %84

“Bai, garai batean bete-beteko lana egin zuten ikastolek euskararen alde, baina gaur egun ikastola pribatuentzako dirua biltzeko jaiak dira. Kalte baino, mesede egiten dio euskarari.”

EZ %16

“Ez. Euskara indartzeko hitz egin behar da euskaraz, beti eta non-nahi. Euskararen alde ezer gutxi egiten du urtean behin ospatzen den jai batek.”

Datorren asterako... Urtea hasi zenetik lanean 95 lagun hil direla salatu du LAB sindikatuak
Neurri nahikoak hartzen al dira lan istripurik ez gertatzeko?

Bidali SMS bat:



BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan bi lagunentzako zirkuitu bat zozketatuko dugu **Zumaiako Zelai Talasoterapian**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

www.talasozeilai.com



motor^{gehigarria}

Ez da erraza kotxe edo motor berria erostea. Zoramena da. Diesela ala gasolina? Gorria, zuria ala beltza? Eta zein motor? Zaldien eta izenen artean erotuta ibiltzea oso ohikoa da horrelakoetan. Gainera, aukeraketa egin ondoren, aseguru derrigorrezkoa da eta, noski, aseguru etxeak ere milaka dira.

Galdera asko eta erantzun gutxi. Gehigarri honetan zure neurrira eginiko informazioa aurkituko duzu. Berotu motorrak eta eman giltzari, bidaiak hastera doa.

ZEZEN-BIDE AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43

1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

motoak

kotxearenordezko ibilgailuak

Gazte guztien lehenengo ametsa kotxea erostea da, baina horretarako ezinbestekoa da hamazortzi urte eginda edukitzea eta, gainera, gida baimena ateratzea. Motoak dira honen ordeztoko aukera bikainak, izan ere, hamasei urtetik aurrera gida daitezke. Mapfre aseguru etxeak eman dizkigu motoentzako aseguruaren xehetasunak. Informazio gehiago nahi izanez gero, berauen bulegora jo dezakezue.



• **ZIKLOMOTOREAK:** 50cc baino gutxiagoko potentzia duten ibilgailuak dira eta legez, ezin dute 45km/orduko abiadura gainditu.

- Oinarrizko poliza
- Hamasei urtetik gorako guztientzat.
- Asegurua duten gurasoen seme-alabek kontrata dezakete, beti ere, hamalau urte eginda badituzte.

• **MOTOZIKLETAK:** 50cc baino potentzia handiagoa duten ibilgailuak dira. Hainbat aseguru eskaintzen dizkigu Mapfrek.

- **Moto-Oinarrizkoa** (Hirugarren pertsoneri eginiko kalteak estaltzen ditu).
- **Moto-Hamar** (Hirugarren pertsoneri eginiko kalteak eta frankizia batekin norberari eginiko hainbat kalte ere estaltzen ditu).
- **Moto-Lider:** (Arrisku orotarako aseguru da, frankiziarekin).

Mapfreekin moto aseguru egiten dutenak Action Team klubeko partaide izango dira eta zerbitzu mordo jasoko dituzte dohainik.



Zatoz gure auto eta motorren aseguru etxea ezagutzera.



MAPFRE





AXIER, S.L.

Erreparazio Zentroa

Garagartza, 1 • MENDARO

Tel.: 943 75 71 60 • Faxa: 943 75 50 72

e-posta: axiersl@axiersl.com

Euskal Herrian  **CORGHI** makineriaren banatzaile ofiziala.



- Neguko pneumatikoetan aukera zabala eta inoiz bañoko eskaintza ikusgarriak. (4x3) (neguko kateak ez dira behar, neguko pneumatikoekin) (ikaragarriko seguratsuna errepiderako)

- Gaur egungo bezeroen eskakizunetarako makineria berria ekarri dugu, lan ezln ohea eskientzeko.

- Pneumatikoen gurpil-azalak askatzeko makinak berriak, llantak ez ditu ezertarako ikutzen.

- 3 dimentsiotako lerrokagailu berria daukagu, eta bertan espezializatu gara.



Gure lurrerako ond denda, guretzako ere bai!

motorra

tailerreko kontuak

CO₂ isurpena murriztea eta erregai kontsumoa jaitea, GM Europaren lehentasunak



Iraunkortasunarekin duen konpromisoa dela eta, General Motorek ingurumena hartzan du kontuan bere produktuetan, garapenetik hasita auto zaharrena birziklapenera arte.

General Motors Europa (GME) bere ibilgailuen isurpenak nola murriztu eta propulsio bidezko teknologia berrien bidez erregai nola aurreztu aztertzen ari da urteetan.

Konpainiak orain dela gutxi ecoFLEX modeluak dauzkala azpimarratu du. Ingurumenari errespetu handia dione, gidatzean erregai gutxi kontsumitzen dutelako eta CO₂ gutxiago isurtzen dutelako.

Irail honetan, GMEk Frankfurtuko Nazioarteko Automobil erakustokian Corsa 1.3 CDTi aurkeztuko du, 119 gramo CO₂ isurtzen dituena eta 2008an merkaturatuko dena. "Ingurumenarekin lotutako Opel/Vauxhall-en ecoFLEX ekimenaren hasiera, ekaharen lehenengotzat, aurrerapauso ikaragarria izan da, isurpenen araudia betetzen ez duten auto zaharrena baja sustatzen baitu", dio Peter Forster GMEko lehendakariak.

Azken urteotan, Premium marka suediarrek, **Saab** modeluaren bidez, Bio-Power motoren aukera zabaltu du bere produktuaren eskaintza guztian.

2010erako, **Opel/Vauxhall** eta **Chevrolet**-en aukeretan bioetanoli ibilgailuak eskaintzea espero da.

Teknologia berrikuntza

GMren Europako lehendakariaren iritziz, CO₂ isurketak parametro garantzitsusak izan arren, hori ez da ingurumenarekiko errespetuzko neurri bakarra. "Iraunkortasunarenganako konpromisoarekin bat etorriz, GMk ingurumen-errespetuarekin ezartzen ari den bere produktuei eta prozesuei, garapenetik hasita auto zaharrena birziklapenera arte".

Epe motz eta erdira begira, berrikuntza teknologikoen bidez, erregaiaren kontsumoa gehiago murrizteko erabakia hartu du konpainiak.

Gainera, gamako modelo guztietan lagundutako direkzio elektrikoak (EPS) ezartzea erabaki da. Dagoeneko Corsak badarama, EPS direkzioak bolanteari eragitean baino ez du energiarik behar. GMEnen arabera, etorkizunean martxan jartzeko eta gelditzeko sistemak automatikoki izango dira, eta oso bizkorak, semaforoen aurrean gelditzean, esate baterako. Sorgailu isil batek ohiko abiatze-motorra ordezkatuko du.

Konpainiak Efizientzia Altuko Alternadorearen (HEA) aldeko apustua egiten du, bestaak beste. Horren bidez, energia mekanikoa elektriko bihurtzen du, oso modu eraginkorrean. Sistemek gaur egun behar izaten duten gol-tentsioa lortzen dute.

Fluxu Aldakorreko Olio Bomba (VDOP) beste sistema bat da. Lubrifikatzeo bakarrik uneoro behar duen olio kopurua ematen dio horek motorrari.

Motorizazioetako hobekuntzak maruskadura txikiro pneumatikoek eta ibilgailuen aerodinamika hobek osatzen dituzte.



KONTZESIONARIO OFIZIALAK



GIAUTO
ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA
Tel. 902 345 123 Saimentak
Tel. 902 345 125 Tailerra
www.giauto.es
clientes@giauto.es



GIAUTO
EIBAR · OLABERRIA
Tel. 902 345 225
www.red-chevrolet.com
giautoclientes@giauto.es



GIAUTO
BERGARA
Tel. 943 763 347
www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es



Diesel motorrekin Chevroleten bost modelo eskuragarri



Bost modelotan diesel motorren aukeraren aldeko hautua egin dezakete. **Chevrolet**ek diesel motorren gama zabala Genevako 77. automobil-erakusketan aurkeztu zuen.

Nubira Station Wagon-en eroselek diesel motorren aukeraren aldeko hautua egin dezakete. **Chevrolet**ek diesel motorren gama zabala Genevako 77. automobil-erakusketan aurkeztu zuen.

Chevroletek bi litroko common-rail I motor modernoaren bi bertsio eskaintzen ditu: 110 kW/150 cv-ko motorra Captivak eta Epicak eramango dituzte. Era berean, 89 kW/121 cv potentziakoa Lacetti, Nubira eta Nubira station wagon-entzat izango da.

Bosch common-rail sistemaren azken belaunaldiaren ezaugarria lau zilindrotako diesel motor boteretsu eta ekonomikoa da. Injektoreak 1,600 bar baino presio handiagoz ponpatzen dute gasolea errekuntza-ganberara. SOCH unitatearen beste ezaugarri batzuk honakoak dira: lau zilindro itiran eta 16 balbula zeharka.

Modeloa	Lacetti	Nubira Lacetti 4D	Nubira SW Lacetti SW	Epic	Captiva
Kapazitatea (cm ³)	1.991				
Errendimendua (kW/hp @ rpm)	89/121 @ 3.800	110/150 @ 4.000			
Max. torque (Nm @ rpm)	290 @ 2.000	320 @ 2.000			
0-100otara km/h (s)	9,8 (10,6)	9,8 (10,6)	9,8 (10,6)	9,7 (10,1)	10,6 (12,2)
V. max (km/h)	186 (188)	186 (188)	186 (188)	200 (207)	186 (180)
NVEG kontsumoa (l/100 km)	5,7 (6,6)	5,7 (6,6)	6,0 (6,9)	6,1 (7,0)	7,4 (8,7)

Ongi etorria aro berrira

Hyundai i30ek aro berria ekarri du automobilaren fabrikaziora. Europako gidarien behar eta nahiei erantzuna emateko sortua, standar berriak ezarri ditu konpaktuen segmentuan.

Konpromisoren gabeko bizitzaz gozatzen dutenentzat dago pentsatua **i30**. Norberaren bizitza estila bizi nahi duten pertsonentzat, erosotasun eta kalitate gabeziarik gabe. Diseinu, dinamika eta kiroitasun sinbiosia da, hainbat elementu funtzionalak osatua.

Kirol-aurralde armonikoak Hyundairen diseinu linea berria erakusten du. Edozein angelutatik begira ere, komposizioa perfektua da.

Hyundairen modeloen nomenklatura berriaren inflexio puntuaren hasiera da **i30**. "i" hizkia markaren filosofia berriaren sinboloa da.

Inspirazioa esan nahi du i-k. Kalitatea, fidagarritasuna eta non egon nahi dugun jakitea Hyundai-ren Europarako zutabeak dira. i-ren inteligentzia ere datorkigu burura. Horixe espero baitute Hyundai-aren bezeroek. Horrexegatik **i30** bakarra da bere mailan.



KONTZESIONARIO OFIZIALAK



**EUSKOAUTO
PASAIA · ELGOIBAR
BERGARA**

Tel. 902 345 245 Salmentak
Tel. 943 396 935 Tailerra
www.euskoautotoyota.es
ve.euskoauto@toyota.es



**MENDAUTO
ELGOIBAR · DONOSTIA
IRUN · ARRASATE
TOLOSA · BEASAIN**

Tel. 902 345 335 Salmentak
Tel. 902 345 335 Tailerra
hyundai@mendauto.com
www.mendauto.com



**KUAUTO
DONOSTIA Salmentak**

Zumalakarregi, 1 · Tel. 943 311 900
LASARTE Tailerra
Zirkuitu, 12 · Tel. 943 360 947
ELGOIBAR Biltegia
Olaso, 27 · Tel. 902 345 365
www.kuauto.net kuauto@kuauto.net

motorra

autoetanberrikuntzak

Automobil hibridoa, aukera garbiena

Apurka-apurka ibilgailu hibridoek presentzia gero eta handiagoa da merkatuan. Automobil hibridoek motore elektrikoa eta erregai-motorea konbinatzen dituzte.

Erregai motorrak elektrizitate-sorgailua mugitzen du. Argindarra baterian gordetzen da eta autoa ibiltzeko balio du. Sistema elektronikoko batek automatikoki aukeratzen du motor bat zein bestea non eta noiz erabili. Era guztietara, elektrikoak beti du lehentasuna.

Ibilgailu hibridoak hidrogenoa erabiltzen dutenak baino garbiagoak dira. Izan ere, hidrogenozkoek poluzitzaile gutxiago isurtzen badute ere, gaur egun hidrogenoa gas naturaletik abiatuta ekoizten da eta, ondorioz, prozesu osoa ez da bestea baino garbiagoa, 2020. urtera arte behintzat, ikerlarien arabera.

Automobil sektoreak gero eta ibilgailu "garbiago" gehiago merkaturatzen dihardu. Gas kutsakorrek eta aldaketa klimatikoa dela-eta, zerbait egin beharrean dago auto industria. Etorkizunean horrelako auto gehiago ikusiko ditugu.



Hibridoena aukera berria denez, erostea oraindik ez da aukera merkea, baina erregaiaren prezio altua eta aurreikusitako igoera kontuan hartzen badugu, erosketaren segituan amortizatu daiteke. Izan ere, motorren konbinaketak askoz ere erregai gutxiago erabiltzea ahalbidetzen du.

Erregai-motorrek energia ikaragarria alperrik galtzen dute beroa, zarata eta bibrazioak sortzen: gutxi gorabehera erabilitako hamar litrotik lau baino ez dira autoa mugitzeko.

Abantailak:

- Zarata gutxiago.
- Dezeleratzerakoan energia berreskuratzen da.
- Elektriko hutsek baino autonomia handiagoa.
- Leuntasun handiagoa eta erabiltzeko errazagoa.
- Kontsumo txikia.

LAGUNMOBIL
C A R R O C E R I A S

Lantalde profesionala
Ardura handiz egindako
konponketak 1.000 m²-ko
instalazioetan

Olaso Poligonoa • Tel.: 943 74 44 30 • Faxa: 943 74 44 36 • ELGOIBAR

Beira tindatuak, eguzki izpietatik babesteko modurik onena

Eguzki izpiek traba handia egiten dute gidatzerako orduan eta istripu asko honen ondorioz sortzen dira. Eguzkitako betaurrekoak erabiltzea beharrezkoa da, baina badago eguzki izpietatik babesteko beste modu bat: beira tindatuak.

Modan dago eguzkitarako laminak jartzea, kotxeari itxura deportiboagoa emateaz gain, abantaila handiak eskaintzen baitituzte. Baina homologatutako laminak behar dute izan, bestela, azterketa teknikoa egiterakoan arazoak egon daitezke.



Abantailak

- Autoaren barneko aldea izpi ultramoreetatik babesten dute.
- Laminak atzeko kristalean jarriz gero, gauez atzeko kotxearen argiek ez digute trabarik egingo.
- Begiak eta ikusmena gutxiago nekatzen dira.
- Istripuren bat izanez gero, kristal zatitxoak ez dira ziztu bizian aterako.
- Auto barneko objektu pertsonalak gutxiago ikusiko dira eta horrek segurtasun sententzia areagotzen du.



Laminak jartzeko gomendioak

- Kristala ondo garbitu behar da, bai barrutik eta baita kanpotik ere.
- Garbitu ondoren, sukaldeko papel-zapiekin errepaso eman kristalari.
- Cutterekin kristalaren forman moztu behar da lamina, zentimetro bateko margena utziz.
- Beira prest dagoenean, ur eta xaboi apur bat eman behar zaio.
- Lamina itsatsi bi pertsonen artean bada, hobe. Kristalaren erdialdetik kanpoaldera itsatsi.
- Lamina itsatsi ondoren, apur bat busti egin behar da eta espatula batekin dena errepasatu, burbuilarik ez ateratzeko.
- Berotasun apur bat ematea komeni da.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK

www.seguros lagunaro.com



Lagun Aro Automobili-aseguru Berria

Orain ordezkotako ibilgailua
DOAN izateko aukera

www.notedejaretirado.com

Santa Ana, 5 • 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 74 73 70 • Fax 943 74 10 51
ygarcia@seguros lagunaro.com

motorra

puntu bidezko karneta

Orain urtebete pasa jarri zen martxan puntukako gida baimena. Hala ere, askok ez dakite oraindik zein diren puntuak galtzeko arrazoiak. Labur-labur azalduko dizkizuegu jarraian.

6 puntu

- Odolean 0,5 mg/l alkohol tasa baino handiagoarekin edo drogen eraginpean gidatzea.
- Alkohol edo droga probak egin nahi ez izatea.
- Kontrako norabidean joatea.
- Abiadura mugak gainditzea.



4 puntu

- Odolean 0,25 mg/l eta 0,50 mg/l arteko alkohol tasarekin gidatzea.
- Autoarena ez den baimen batekin gidatzea.
- Autopista eta autobietan debekatuta dauden ibilgailuekin gidatzea.
- Leihotik errepidera arriskua sortzeko moduko objektuak botatzea.
- Debekatuta dagoen lekuan aurreratzea.



- Modu arriskutsuan gidatzea.
- STOP edo semaforo gorrian ez geratzea.
- Autopista edo autobian atzeraka ibiltzea.
- Txirrindulariak arriskuan jarriz aurreratzea.
- Udaltzainen esanak ez betetzea.
- Abiadura muga ez errespetatzea.

3 puntu

- Segurtasun tartea ez mantentzea.
- Norabide aldatuta modu arriskutsuan egitea.
- Sakelako telefonoa eskuan hartuta gidatzea.
- Segurtasun uhalik gabe gidatzea.



2 puntu

- Garraio publikoarentzako guneeetan aparkatzea.
- Arriskua sortzen den lekuetan aparkatzea.
- Radarrak detektatzeko aparatuak erabiltzea.
- Argirik gabe gidatzea.



XARMANT MILENIUM

XARMANTen edozein aseguru mota kontratatzeke beharrezkoa duzun laguntza eta informazioa emateko lan egiten dugu, ahal den arinen eta eraginkortasun handienarekin.

ZURE ESKURA GAUDE!

Trenbide kalea, 21 behea • Tel.: 943 74 80 92 • Faxe: 943 74 82 42

Softlan-EN ESKUTIK

INFORMATIKAREN GARAI BERRIA

Aurrerapen teknologikoen garai berria hurbiltzen ari da, eta berrikuntza horiek aurreikusi ahal izateko eta horiek enpresa munduan sartzeko behar diren neurriak hartzeko, Gartner Inc-ek iragarri du informatika sektoreak hiru etapa nagusi zeharkatuko dituela 2007 eta 2012 urteen artean. Etapa horietan iragartzen du norabide aldaketa argi bat gertatuko dela erabiltzaileentzako inguruneetarantz.

Lehen etapa: 2007/2008. Ezaugarri nagusia hardware eta sistema eragileen aldaketa estrukturalak izango dira, adibidez, Vista sistema eragilea eta Intel-en prozesagailu berriak hedatuko dira. Etapa honetan ordenagailu eramangarrien erabilera areagotu egingo da. Teknologia berriek gero eta gehiago ahalbidetzen dute etxetik lan egitea. Azken batean gero eta jende gehiagok ordenagailu baten aurrean egiten baditu ordu gehienak, logikoa dirudi zenbait lan bulegotik etxera eramatea.

Bigarren etapa: 2009/2010. Birtualizazioa izango da ezaugarri nagusia. Korronte berriak sortu eta nagusituko dira ingurune birtualean. Gartner-ek aurreikusten du ekipo pertsonalak erabiltzen dituztenen kopurua handitu egingo dela. Gainera, zabaldu egingo dira eguneko 24 orduetako iraupen luzeko konexiodun sistema informatiko mugikorak, eta langile mugikorak ez dira jadanik salbuespena izango. Bes-

talde, Windows XP euskariaren gainbehera gertatuko da etapa honetan eta, antza, modularragoa izango den sistema operatibo bat hedatzen hasiko da.



Zer da birtualizazioa? Ekipo batean sistema eragile desberdinak erabiltzea, aldi berean eta era iraunkorren. Azken batean, birtualizazioa gure ekipoan martxan dagoen beste programa bat da, ordenagailu birtual desberdinak izateko aukera eskaintzen digun programa berezi bat hain zuzen.

Gure enpresan, zenbat informatika-ekipori ez diegu behar bezalako etekinik ateratzen? Hazkundera dela-eta, gure informatika-parkea gehiegi hazi da eta ez da erraz kontrolatzeko modukoa? Beste zerbitzu bat integratu nahi dugun bakoitzean hardware edo software berri bat erosi behar izaten al dugu?

Galdera hauei erantzuteko birtualizazioa kontuan izatea ezinbestekoa izango da datozen urteetan.

Hirugarren etapa: 2011/2012. Teknologia gizabanakoa izango du ardatz, gero eta gehiago. Erabiltzailearen nortasun transferigarria izango da aldaketa nagusietariko bat. Horri esker aise igaro ahal izango da ingurune batetik bestera bere lan saioa aldean daramala. Elkarreragin eredu berriak sortuko dira, eta ordenagailuaren bitartez entzunezko, ikusizko edota keinu bidezko komunikazioa gauzatu ahal izango da.

 Softlan analisis & programazioa	Antonio Amillaga, 1 Tel.: 943 74 81 05 info@softlan.biz www.softlan.biz
--	--

 MICRO SYSTEM	INFORMATIKA DENDA Lerun Industrialdea, 6 ZERBITZU TEKNIKOA Jausoro Plaza, 3 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 02 40 E-posta: info@elgonet.es	

 ZAZPI INFORMATIKA	zazpi@telefonica.net Pedro Muguruza, 8 behea Tel./Faxo: 943 74 37 87
---	--

 On informatika	Upaiz Zaharra 6 943 741 846 www.oninformatika.com on@oninformatika.com
---	---

GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

ZABALIK DAUDE

GAZTELEKUKO ETA LUDOTEKA

ELGOIBARREN UDALAK AISIALDIARI LOTUTAKO BI ZERBITZU BERRI IREKI DITU JOAN DEN BARIXAKUAN: LUDOTEKA, UMEENTZAKO, ETA GAZTELEKUA, GAZTETXOENTZAKO. AZKEN ASTEOTAN EGINDAKO PROMOZIO KANPAINEK JAKINMINA SORTU ZUTEN BEHINTZAT ETA ELGOIBARKO IZARRAK KUDEATUKO DITUEN BI EKIPAMENDUON INAUGURAZIORA MAKINA BAT JENDE HURBILDU ZEN.

Barixakuan gaztelekuaren eta ludotekaren ateak ireki egin ziren. Haur eta nerabe mordoa hurbildu ziren Gabriel Krutzelaegi kaleko bi lokaletan zer dagoen bertatik bertara ezagutzeko. Azken asteotako promozio kanpainaren emaitza zen. Antolatzaileek espero baino haur eta gaztetxo gehiago hurbildu ziren ekipamenduetara. Jakinmina, ilusioa eta algara somatzen zen giroan.

Gabriel Krutzelaegi kaleko 4.eko lokaletan dago gaztelekua. 150 metro koadroko lokal horrek oso itxura modernoa dauka. Hamahiru urtetik hamazortzira arteko nerabeak hartuko ditu. Ekipamenduaren erdigunea zabala da, mahai, liburu eta errebis-tentzako apalekin, ping-pong, futbolen eta guzti. Horrez gain, ordenagailu gela, sukaldaria, egongela, eskulan gela eta komunak daude. Hezitzaileendako gela ere badago.

“Denek ikusi dute oso leku txukuna. Egia da, berria da. Orain arte antolaketaz aparte, ekipamenduaren diseinuan eta dekorazioan lan egin dugu, nahiz eta erabilpenak aldatu dezakeen, oraindik ez du formarik” adierazi digu Ainara Lasa arduradunaren esanetan. Horregatik daude hormak zuriz, gazteek grafitiz edo nahi duten erara pintatzeko, dekoratzeko.

Aisiaren esparruan beste aukera batzuk eskaintzera dator Gaztelekua. Eskaintzak

hezitzailea, integratzailea eta berdintzailea beharko du izan, antolatzaileen arabera. Ikastaro, tailer, txapelketa eta gazteek proposatutako ekimenak antolatuko dituzte bertan. Gaztelektik irteera eta txangoak ere izango dira. Udal zerbitzuak diren heinean, ekintza horietarako aurrekontua izango da eta beraz gazteentzat merkeagoak izango dira.

Gaztelekuak epe luzerako erronka du. Antolatzaileek badakite gaztetxoak egun batetik bestera erakartzea ez dela hain erraza izango. “Elgoibarren lokalen errealitatea

dago. Gazteek lokala alokatzen dute eta handik ez dira ateratzen”. Ikastetxe, koadrila edo adin berekoak ez direnekin ez dira erlazionatzen. Gaztelekuak hori guztia hautsi nahi du.

Gaztelekua martitzenetik domekara bitartean egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Lan egunetan bi hezitzaile izango dira bertan (Argitze eta Maialen) eta asteburuetan beste bi (Ane eta Ainhoa). Bertara doan joan ahal izango dira gazteak eta ez da harpidetzarik egin behar izango.



BARREN

UDAL LUDOTEKAKO ATEAK



Ludoren txokoa

Udal ludoteka hurrengo etxe blokearen azpian dago. Jolasaren bidez haurren nortasuna garatzen lagundu nahi dute bertan. Metro koadrotan berdina bada ere, espazioa oso modu ezberdinean dago antolatuta, bostetik hamabira bitarteko umeendako diseinatu dutelako. Hezitzaileen bulegoaz gain, jolas sinbolikoen gela, jolas libreko gunea, antzerki txokoa, tailer gela (sukalde eta guzti) eta ordenagailu zein irakurketa txokoa eta komunak dauzka.

Ludotekako hometan Ludo maskotaren hainbat irudi aurki ditzakegu, hainbat jardueratan. Umeek erreferente bat behar

zutela eta, txakur hori sortzea erabaki zuten. Azken egunotan, promozio kanpainarako, Ludo Elgoibarko kaleetan ikusi zuten umeek. Eta inaugurazio egunean berarekin jolasteko aukera ere izan zuten.

Ludotekara joateko harpidetu beharra izango da. Dena den, gurasoei lasai ibiltzeko eskatu diete antolatzaileek. Hasieran espazioa ikus dezatela. "Lehenengo aste gutzian etortzeko esaten diegu eta ondoren apuntatzeko epe bat egongo dela esaten diegu". Ludoteka astelehenetik barrixakura bitartean egongo da zabalik, 16:30etik 19:30era. Maite eta Nerea hezitzaileak bertan izango dira.

HERRIKO BEHAR ETA PROPOSAMENAK KONTUAN



"Luzerako kudeaketa izatea espero dugu. Hau dena aurrera ateratzeko bi baliabide ditugu: ekipamendua eta lan talde profesionala", Elgoibarko Izarrako Ainara Lasa arduradunaren esanetan. Izan ere, Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu bi Udal zerbitzuok. Herriko behar eta proposamenei zabalik daudenez, zerbait behar izanez gero Elgoibarko Udalera jotzeko eskatu du Ainarak. Ekipamendu barruko arazoren bat badago, hezitzaileengana edota elkartera jotzeko eskatu du. "Berezia da herriko ekipamendu bat herriko elkarte batek kudeatzea. Horrek ere eman dio heritartasuna. Ez da kanpoko enpresa bat, horrelako ekipamenduetan askotan gertatzen dena. Hemen elkarte baten filosofia mantenduko da".

UDAL LUDOTEKA

Norentzat: 5-12 urteko umeak

Ordutegia: astelehenetik barrixakura, 16:30etik 19:30era

Helbidea: Gabriel Krutzelaegi, 6

Telefonoa: 943748883

e-posta: ludoteka@elgoibar.org

Bazkide kuota: urte osoa, 40 euro.

Familia ugarientzat %30eko deskontua;

Gizarte Zerbitzuetako programen

erabiliztaileentzat %100ekoa.

UDAL GAZTELEKUA

Norentzat: 13-18 urteko nerabeentzat.

Ordutegia: Martitzenetik domekara, 17:00-20:00era.

Helbidea: Gabriel Krutzelaegi, 4

Telefonoa: 943743228

e-posta: gaztelekua@elgoibar.org

Altzariak birziklatzeko ikastaroko izenematea

Altzariak zaharberritzeko eta birziklatzeko ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da, 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Eskuz taldeak antolatutako ikastaroan izena emateko 943740801 telefonora deitu (Mertxe).

Garapen pertsonalean sakontzeko ikastaroa

Haizea emakume taldeak garapen pertsonalean sakontzeko ikastaroa jarri du martxan. Irakaslea Eskame Larrinaga izango da eta Pedro Muguza ikastetxean arratsaldean izango dira klaseak. Informazio gehiagorako, Ptxintxura jo edo deitu 943743206.

Uriaren 18an hasiko da Zine Klub denboraldia

Jaime Rosalesn "La Soledad" pelikularekin hasiko da Ongarri Zine Klubaren denboraldia hilaren 18an. Hiru herrialdeetako pelikulak ikusteko aukera eskainiko digute oraingoan: Espainia, Frantzia eta Alemania. Pelikula guztiak ostegunetan izango dira, gaueko 21:30ean.

Espainiako autore-zinea

- "La soledad"
- "En la ciudad de Silvia"

Zine klasiko frantsesa

- "Borrachera de poder"
- "Conversaciones con mi jardinero"
- "El infierno"

Alemaniako zine berria

- "Cuatro minutos"

Kiribilka egitasmoa ondo joan dela nabarmendu dute antolatzaileek

Joan den barixakuan egin zen Kiribilka egitasmoaren aurtengo saioa. Elgoibarko Izarra elkarteak antolatzaileek aurtengo erantzunarekin pozik daukela nabarmendu dute.

Balorazioa, orohar, oso positiboa da. "Alde batetik Elgoibarko Plaza Handian haur eta gurasoak euskaraz ongi pasatzeko ohitura sortu da Kiribilka dagoen egunetan, eta bestetik, hainbat euskal jolas eta abesti ikasi dituzte bertara hurbildu diren haur eta gurasoek", azpimarratu dute antolatzaileek.

Saioetan haur eta guraso askok parte hartu dute. Batezbesteko, saio bakoitzean ehun ume inguru izan dira. Eurekin batera lau begiralek eta Kiribil barraskilok parte hartu dute saioetan. Egitasmoa martxoan hasi eta urrira bitartean gauzatu da egitasmoa. Guztira hamalau eta hiru ikuskizunsaio izan dira aurtengoan.



Familietan euskara indartzen

Kiribilka familietan euskararen eta euskal giroaren aldeko jarrera positiboa indartu nahi dute. Aurten saioen ardatza betiko jolasek osatu dute. "Garrantzitsua iruditu zaigun aintzinako edo betiko jolasak gaur egungo haurrei erakustea. Gainera, euskarazko kantak eta dantzak, eskulanak eta abar egin ditugu.

Hamabi komiki aurkeztu dira Kokoeren leihaketara



Hamabi lanek parte hartu dute Kokoe elkarteak antolatutako Elgoibarko XII. Komiki Leihaketan. Aurten ediziora aurkezteko epea urriaren 1ean amaitu zen eta datorren barixakuan, urriaren 19an egingo da sari banaketa. Epaimahaikideak egunotan ari dira lanen kalitatea aztertzen. Horrekin batera, Kokoe elkarteak ki-deak erakusketa prestatzen dihardute. Lanok Kultur Etxeko erakusketa gelan ikusteko aukera izango da urriaren 19tik 28ra bitartean. Argazkian, iazko sari banaketa.



KOMERTZIAL TEKNIKOA BEHAR DA ERREMINTA MAKINA SEKTOREAN

- Gutxieneko formazioa, 3. gradu zikloa.
- Ingelesa kontuan hartuko da.

Hautagaiaren arabera baldintzak eta soldadak.
Idatzi ondorengo helbidera: quintana@murrplastik.es



- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Ubarbata 75 - Pabiloia 34, Poligono 27
20014 Dorcota - Telefonoa 943 44 48 37 - Faxa 943 47 20 95

TXIRRINDULARITZA

San Pedrorako txirrindulari igoera bihar, Pilarika Egunean, jokatu da

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, bihar, urriaren 12an, jokatu da San Pedrorako Txirrindulari igoeraren XVI. edizioa. Urtero bezala, Pilarika egunean daukate zita txirrindulariek. Afizionatuen mailako lasterketa horrek emango dio amaiera txirrindulari denboraldiari. Eguerdiko 12:00etan aterako dira partehartzaile guztiak Plaza Handitik eta helmuga San Pedron izango da.

Iaz 35 txirrindulari

Azken urteekin konparatuz, partaidetza txikia izan zen iazko edizioan. 35 lagunek hartu zuten parte eta Jorge Gonzalez izan zen helmugaratzen bizkorrena. 14 minutu eta 27 segundutan gelditu zuen erlojua txirrindulari elgoibartarrak. Bi urtez segidan bigarren lekuan geratu ondoren lortu zuen



garaipena. Marka oso ona egin zuen arren, ez zuen lortu Iñigo Larizen errekorra haustea. Lariz da proba honetan erregea, lau aldiz lortu du garaipena eta 13 minutu eta 21 segundurekin, berea da denborarik onena.



Juanjo Agirregabiria txinga eramaileak 30 plaza egin zituen 50 kiloko txingekin

Errosario kaleko jaien barruan, txinga erakustaldia izan zen zapatuan. Juanjo Agirregabiria lasturtarrak ikuskizun bikaina eskaini zuen. Euskal Herriko txapeldu-nak ez zuen huts egin: 30 plaza egin zituen 50 kiloko txingak esku banatan hartuta. Ondoren, pisu berbera atzamar bakkarekin hartuta, ia hiru plaza egin zituen. Bi proba horien artean, zenbait heritarrek euren indarrak neurtu zituzten 25 kiloko txingekin. Roberto Merinok sei plaza egitea lortu zuen eta beste neska gazte batek hiru plaza egin zituen.

2007-08 ikasturterako Eskola Kirola martxan da

Kirol gaiak komunean jorrazteko helburuarekin sortu zen urte honen hasieran Debabarreneko Kirol Mahaia eta horien artean, Eskola Kirola da lehenetsun handiena daukan gaia. Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuk adostu dute 2007-08

ikasturterako Eskola Kirola programa eta, dagoeneko, martxan jarri dute aurtengo egitasmoa. Informazio gehiago lortu edo parte hartzeko 943192840 edo 61780884 (Iñaki Egaña) telefonoetara dei daiteke.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Durangoko Kulturala **2** - Haundi **2**
 Elgoibar **4** - Arizmendi **2** (Nesk)
 Elgoibar **1** - Martutene **2** (1. erreg.)
 Elgoibar **0** - Zumaiako **0** (Jub.)
 Aloñamendi **2** - Elgoibar **2** (Kad.)
 Urki **0** - Elgoibar **4** (Inf.)

ESKUBALOA

Ereintza **21** - Pneumax **25** (Jub. mut.)
 Ereintza **46** - Tecnomeca **6** (Kad. mut.)
 Cometel **14** - Zarautz B **13** (Jub. neska)
 IMH **29** - Zarautz B **18** (Kad. neska)

FUTBITOA

Kenci **7** - Goierri **4** (Euskal liga)
 Lauburu **7** - Elgoibar **4** (Jub.)

PILOTA

Antiguoko **22** - Lagunak **20** (Jub. 1^a)
 Olalde **22** - Lagunak **12** (Nag. 2^a)
 Lagunak **17** - Bergara **22** (Nag. 1^a)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Barixakua, 12
 10:00 Elgoibar - Eibartarrak (inf.)
 12:00 Elgoibar - Eibar (Kad.)
 17:00 Haundi - Zarautz

Domeka, 5

10:30 Elgoibar - Hemani (Inf. B)
 12:30 Elgoibar - Zalla (Jub.)

ESKUBALOA Kiroldegian

Barixakua, 12
 9:30 Tecnomeca - Pulpo (Kad. mut.)
 11:00 Pneumax - Pulpo (Jub. mut.)
Domeka, 14
 11:45 Tecnifuelle - Elorrio (Sen. neska)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Barixakua, 12
 12:00 Elgoibar - Mondaine
Zapatua, 13
 15:30 Xagua - Ordizia

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai erdialdean. Hiru logela, sukalde, komuna eta tras-teleku txiki bat. ☎ **637124868**
- ▶ Buhardilla salgai Altzolan. ☎ **695776373**
- ▶ Etxea salgai Bernardo Ezenarro 9an, 80m². Igogailua, gas naturala leihoaraino, ganbara 15m²koa, berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria. ☎ **665735660**
- ▶ Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria. ☎ **619409273**

- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukalde-jangela eta egongela. Komuna eta berogailua. 3. solairua. ☎ **688650060**

ALOKAIRUA

- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **646832693**
- ▶ Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **659093967**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699637269**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **943531288**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Lokal merkea hartuko nuke. ☎ **630700272 (Jenny)**
- ▶ Lokala salgai erdialdean. 25m². ☎ **677731061 (Alfonso)**
- ▶ Marradun garajea alokatzen da herri erdian, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**
- ▶ 200m² eta 400m²ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairua. ☎ **619409273**
- ▶ Garajea alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu. ☎ **669022573**

[AUTOAK]

- ▶ 250cc Suzuki RMX motorra salgai. 1.300 euro. ☎ **646279610 (Mikel)**
- ▶ Daelin 125cc motorra salgai. Merke. ☎ **696409904**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Borda erosiko nuke. ☎ **676402851**
- ▶ Dalmata arrazako txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. ☎ **636135319**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Mutila lanerako prest. Kamarero, peoi. ☎ **625338556**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean edo etxean. ☎ **693010168**
- 40 urteko gizon euskalduna lanerako prest. Gida baimenarekin. ☎ **661225149**
- Mutila ostalaritzan edo nagusiak zainduz lan egiteko prest. ☎ **639945935/943531608**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **678117022**
- Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ **658164787**
- Emakumea nagusiak zaindu, garbiketak eta plantxa egiteko prest. ☎ **639505373**
- Neska lanerako prest. ☎ **696204053**
- Neska lanerako prest. ☎ **669064252**

- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **638333816**
- Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ **638333816**
- Neska lanerako prest. ☎ **646832693**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **699813826 (Beti)**
- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **671158943 (Sofia)**
- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **666111032 (Catia)**
- Ingeles klaseak ematen dira. Maila guztiak. ☎ **606733850**
- Enpresa eta merkataritza-ingeles klaseak eskaintzen dira. ☎ **696964069**
- Mutila pinturan, altzariak bami-zatzen edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **638338816**

- LH eta DBH1. eta 2. mailako klase partikularrak emango nituzke urritik aurrera. ☎ **943742855**
- Neska lanerako prest. ☎ **660529146**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **699609190**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketatarako prest. Arratsalde. ☎ **678939382**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ **639240038**
- Neska garbiketatarako edo kamarero lanerako prest. ☎ **627831477**

- Kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **688623668**
- Parafarmazian lan egiteko dietista behar da. ☎ **686045321**
- Kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ **635751642**
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**
- Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943121262**
- Neska behar da aste barruan, 12:30etik 15:30era tabeman lan egiteko. Euskalduna, 28 urtetik gorakoa. ☎ **943741416**

ABISUAK

- Katu persiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu. ☎ **647067666 (Sorkunde)**
- Eguzkitako betaurreko graduatuak aurkitu ditut. ☎ **943742855**
- Egunero Azkoitiik Elgoibarrera autoz etortzeko prest dagoen norbait behar dut. ☎ **699820820**

BARREN astekarian lan egiteko

KAZETARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua (edo kazetaritza ikaslea).

Eskaintzen da:

- 2008ko uztailera arteko lan-kontratua. Luzatzeko aukera.
- Berehala lanean hasteko aukera.

Informazio gehiago eta curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte - Ubitarte 4, behea

Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

Curriculumak entregatzeko azken eguna: urriak 19.

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Irati**, hilaren 14an 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat lonen partez.



▶ Zorionak **Sara Pinterl** Ondo pasa eguna guraso eta lagunekin batera. Aititita eta Loliren partez.



▶ Zorionak **Ander**, urriaren 12an bi urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Ainhoa, Garazi eta Naroaren partez.



▶ Zorionak **Oier Arriolari** urriaren 13an 7 urte egingo dituelako. Muxu handi bat Xabiren partez.



▶ Zorionak **Hamil** Oso ondo pasatu genuen zure egunean! Muxu handi bat lkastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Maria**, zure 7. urtebetetzean! Familiakoan eta bereziki, ahizpa Sararen partez.



▶ Zorionak **Garazi** Hilaren 10ean urtebete bete duelako. Jon, Asier, Olatz, Aitor lehengusaren eta Unai anaiaaren partez.



▶ **Eider**, azkenean heldu dira! Aitor, ama eta aita-txon partetik zorionak!



▶ Zorionak **Leire**, hilaren 7an 8 urte! Etxekoan partez, bereziki Aneren partez.

▶ Zorionak, amuma **Nikasi!** Ondo pasa eguna famili guztiaren partez.

gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa
Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

Zerbitzuak

[OKINDEGIA]



12 barixakua FOTERO



14 domeka IBARRENEA



[FARMAZIAK]

- 12 **GUARDIA** 24 ORDUZ
- 13 Ibañez
- 13 Fernandez
- 13 (* Etxeberria Santa Ana)
- 14 Fernandez
- 14 (* Goizez Yudego)
- 15 Zabaleta
- 16 Yudego
- 17 Etxeberria (Errosario)
- 18 Ibañez
- 19 Bidasolo

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

aek
 euskaltegiak 25 urte
 "Nire aitak euskaraz hitz egiten zuen; txikitako hizkuntza berreskuratu nahi nuen. Pozik nago, umekin asko erabiltzen dut."
 Elgoibarko **aek** euskaltegia
 Plaza Txikia, 3
 Tel.: 943 74 13 32
 elgoibar@aek.org

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Iraileko irabazlea:
AMAGOIA RUIZ DE GAUNA

Urrirako saria:
HIRU ORRAZKERA BERE TRATAMENDUEKIN

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
 Tel.: 943 74 40 26

[12 BARIXAKUA]

12:00 PILAR EGUNA

Pilar Ikastetxean
Lehenik, meza ikastetxeko gimnasioan.
Ondoren, 13:00etan, luntxa, guraso-batzordeak antolatuta

12:00 XVI. SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA

Iteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

[18 EGUENA]

21:00 ANTZERKI TAILERRAREN JARRAIPENA

Osategunero 21:00etatik
23:00etara urritik abendura (hau bame)
Informazioa: 943 74 36 55
Antolatzailea: Taupada Antzerki Taldea

[19 BARIXAKUA]

17:30 "ADARBNAKAR URDINA"

Txotxongilo ikuskizuna
Taldea: Bihar Txotxongilo Taldea
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Atxutxi eta Gaz-T

17:30 KOMIKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA ETA SARI BANAKETA

Lehiaketan parte hartu duten lanekin osatutako erakusketaren inaugurazioa eta sari banaketa
Astelehenerik larunbatera,
19:00etatik 21:00etara.
Domeketan, 12:00-14:00.
Urriaren 28ra arte ikusgai
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea Kokoe Komiki Elkarte

22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "La Masai Blanca"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskame Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea.

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«El ultimatum de Bourne»

12, barixakua: 22:15
13, zapatua: 19:00-22:15
14, domeka: 19:00-22:15
15, astelehena: 21:30
"Ratatouille"
14, domeka: 16:30
"La soledad" (Z.Kluba)
18, eguna: 21:30
«Sigo como dios»
19, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Promesas del este»

12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua: 17:00-19:30-22:15
14, domeka: 17:00-19:30-22:15
15, astelehena: 19:30-22:15
16, martitzena: 19:30-22:15
17, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.


«El ultimatum de Bourne»



Zuzendaria: Paul Greengrass
Antzezleak: Matt Damon, Julia Stiles.

Jasone Bourne ixilpeko agente/hiltzailea sortu zuen programa desagertu da jadanik, baina Blackbriar programak hartu du haren lekua. Hiltzaile berriak prestatzen dituzte bertan. Hiltzeko makina perfektua egin zuten Boumerekin eta bere abilezia guztiak erabiliko ditu bere helburua lortu artean.

«La Soledad» (Z.K.)



Zuzendaria: Jaime Rosales.
Antzezleak: Sonia Almarcha, Petra Martínez, Miriam Correa
Adela, seme bakarreko ama, banandua da. Leongo herrixkako bizimoduaz nazkatuta, semea hartu eta Madrilera joatea erabakiko du. Azafata lanetan hasiko da lanean. Carlos eta Ines moduko pisukide jatorrek asko lagunduko diote baina atentatu terrorista batek bisita hondatuko dion arte.

Atzera hegira



1970. urte inguruko erretratu zahar hau **Luis Gonzalezek** laga digu. Plaza Txikian egiten zen futbol txapelketan ateratako argazkia da. Garai hartan eskolak zeuden bertan, eta gaur egun aparkalekua dena, lehen jolastokia zen. Futbol txapelketa hori herri mailakoa izaten zen, kanpotik oso talde gutxi etortzen ziren. Bi kategoria bereizten ziren txapelketan, nagusia eta txikiena. Zapatu arratsaldeetan eta domeka goizetan jokaten ziren partidua eta jende asko joaten zen ikustera eta animuak ematera. San Bartolome kaleko bizilagun askok etxeko leihotik jarraitzen zituzten norgehiagokak. Argazkian agertzen den taldeak "Rayo San Pedro" zeukan izena eta Ovidio Campello zen entrenatzailea. Gogora ditzagun zein diren erretratuan agertzen diren futbolariak. Zutik, ezkerretik eskumara: **Irondo, Luis Cerron, Carballo, Javier Aguirrebeña "Kirru", Insausti eta Ovidio Campello (entrenatzailea)**. Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Eufrasio Frias "Sito", Campello, Dominguin eta Loiola**.



ESKERTZA

2007ko uztailaren 11n, 45 urte zituela hil zen **Beatriz Irondo Osororen** oroimenez, lagunek jarritako meza izango da urriaren 22an, eguerdiko 12:30ean Altzolako San Juan Parrokian.



ESKERTZA

2007ko urriaren 8an hil zen **Vicente Aldazabal Arrillagaren** sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizuntara agertu izana.



PSIKOMOTRIZITATE saioak

(Aucouturier metodoan oinarriturik)

Saioen helburua haurren heldutasuna, identitatea eta gorputz osotasuna lantzea da.

Bi irakasle psikomotrizistak emango dituzte saioak.

- + Izena emateko epea: urriak 19
- + Prezioa: 100 euro
- + Astean 60 minutuko saio bat izango da (azarotik-martxora)
- + Informazioa eta izen-ematea: Elgoibarko Izarra. 943-74 16 26 (Ainara)

2-5 urte bitarteko haurrentzat



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



ASEGURU ARTEKARITZA

URNOBITZA S.L.

MS - 010

ETXEBIZITZA: Merkatuko bermerik onena eta aparteko prezioan.

KOMUNITATEAK: Azken albisteak ditugu. IZAR-PRODUKTUA.

MERKATARITZA: Ez dizuete lapurreta asegururik egiten?

Geuk egingo dizuegu.

BIZIA-ISTRIPUAK: Aurrea hartu, zure bizi-kalitatea aseguratu.

OSASUNA: Bete zure beharrak goi mailako produktuekin.

AURREZTU: Aurrea hartu zure erretiroari plan on batekin.

EPSV, zure beharren arabera.

ENPRESA: Zure enpresan arazo berriak sortzen dira? Horretarako

gaude, KONPONTZEKO.

AHOLKATZEKO GAUDE. ZURE NEURRIKO ASEGURUA ZIUR BILATUKO DUGU. AHOLKUA ESKATU.



Pneumatikoak

Tel: 943 74 25 91

Urria eta Azaroan...

Elgoibarko zure Ford Tailerrean **LERUN AUTOAK**

Firestone

BRIDGESTONE

Continental

PIRELLI

Kleber

MICHELIN

GOOD YEAR

DUNLOP

HANKOOK

Hemendik aurrera,
bigarrena izango duzu gogokoen



%50 ko
beherapena
2. pneumatikoan

Desberdin sentitu



Informazio gehiago lortzeko Ford Tailerra joan edo deitu 943 74 25 91 Lerun Autoetako telefonoa.
Indarrean dagoen sustapena Urriak 1etik 2007ko Azaroak 30era.
Sustapen aplikagarria kanpainen neurria soilik eta beste pneumatiko eskaintzetara ez metagarriak.
Oinarri legetak erabiltzariek: www.ford.es

Kontsultatu Lerun Autoetan, zure tailerra!
gure pneumatikoen eskeintzak
kanpainen neurrientzako eta harrituko zara!